

KONTUA: ZEUK ERABAKI DATUA!



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Nola babestu zeure
pribatutasuna**

Argitalpena:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzaileak: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ale kopurua: 44.000
Argibide gehiago eskuratzeko sartu helbide honetan: www.kontuzdatos.info

KONTUZDATOS.INFO PROIEKTUAREN ARGITALPENEA

Proiektuaren egokitzapena: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Diseinua eta irudiak: Hélice creativos
Argazkiak: Håvar Haug/Bård Ek
Inprimaketa: Dosbi, S.L.
L.G.: XXX

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71,
3. solairua
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 016 230
www.avpd.es

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 018 182
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Eskuliburu hau egiteko erabili den informazioa 2007ko urtarrilean argitaratu zuen Norvegiako Datu Agintaritzak (The Data Inspectorate), Norvegiako Hezkuntza eta Prestakuntza Sailaren (Norwegian Directorate for Education and Training) eta Norvegiako Teknologia Batzordearen (Norwegian Board of Technology) laguntzarekin.

JATORRIZKO PROIEKTU NORVEGIARRAREN ARGITALPENEA

Argitalpenaren arduraduna: Ove Skåra, The Data Inspectorate
Proiektuaren zuzendaritza: The Data Inspectorate
Kazetaria: Inger Lise Welhaven
Idea eta ekoizpena: Gambit Hill & Knowlton
Diseinua: Haugvar Communications & Design
Argazkiak: Håvar Haug/Bård Ek
Irudiak: Åsne Flyen
Inprimaketa: Grefslie Trykkeri
Argibide gehiago eskuratzeko sartu helbide honetan: www.dubestemmer.no

The Data Inspectorate
www.datatilsynet.no

Norwegian Directorate for Education and Training

Norwegian Board of Technology
www.teknologiradet.no

ZEURE AUKERA

Eskuliburu honek norberaren datu pertsonalak babestea zein garrantzitsua den azpimarratu nahi du.

Bertan, beste pertsona batzuek zure datuak nola erabil ditzaketen ikusiko duzu, eta, alditan, gaizki erabili, gainera. Bide batez, informazio hori nola babestu ikasiko duzu.

Seguruenik eskuliburuko zenbait eduki ezagunak egingo zaizkizu; beste batzuk, ordea, guztiz berriak izango dira. Espero dugu eskuliburua baliagarria izatea gai honi buruzko eztabaldetan, eta lagungarri izatea kontzeptu berriak eskuratzeko ere.

Gure helburua zuri laguntzea da, ahalk eta erabakirik egokienak har ditzazun.

Irten?

Sartu?

KONTUA: ZEUK ERABAKI DATUA!

**Irakaslearekin, aitarekin eta amarekin
nuen bilera ondo zihoan ...**



**.. baina sekulako iskanbila sortu
zen irakasleak esan zienean zer aurkitu
zuen nitaz Interneten!**

Zure irakasleetako batekin eta zure ardura duten pertsona helduekin batzartzen zarenean, ez zaizu burutik pasatu ere egiten esatea lanak Internetetik eta dauden daudenean kopiatzen dituzunik. Era berean, gelan zaudenean ere ez duzu eskua altxatzen denei esateko azken boladan zeintzuk web-orri ikusi dituzun.

Sekreturen bat baduzu eta lagunen bati esan nahi badiozu, seguru ez duzula lagunekin egoten zaren tabernako iragarki-oholean jartzen denek ikus dezaten. Eta logelan zaudenean neska edo mutil-lagunarekin txateatzen, ez duzu izeba gonbidatzen zuen arteko elkarrizketan parte hartzera.

Seguru kontu horiek zeuretzat gorde nahi dituzula...

Baina beti ez zaude

A **no** **ni** **MA** **TUAN**

**ez, behintzat, zuk
uste duzun bezala.**

iiiDANBA!!!
 BESTE ATE-KOLPE BAT.
 BAKARRIK ZAUDE
 AZKENEAN.
 AULKIAN ESERI ZARA.
 ORDENAGAILUA PIZTU
 DUZU LAGUNEKIN
 TXATEATZEKO ETA SAREAN
 IBILTZEKO. BAKAR-
 BAKARRIK ZAUDE ZURE
 APARAILUEKIN, GURASO
 GOGAIKARRIENGANDIK
 ETA ANAI-ARREBA TXIKI
 KUXKUXEROENGANDIK
 SALBU.

Datu pertsonalen babesa heziketa-kontu bat da eta portaera onarekin lotuta dago. Normalean ez dugu inoren bizitzan muturrik sartzen, ez gara ateetako behatxuloetatik begira ibiltzen, ez ditugu inguruko eskutitzak irekitzen eta ez ditugu lagunei bidali dizkieten posta elektronikoak irakurtzen.

UTZ ZAITZATELA BAKEAN, ESKUBIDEA DUZU ETA! ESKUBIDEA DUZU ETA!



Denok dugu zer edo zer beste inorekin partekatu nahi ez duguna. Eta ez da, ez, legez kanpokoa delako edo ezkutatzeko modukoa delako, norberaren kontu pribatua delako baizik, besterik ez. Eta horrexegatik, hain zuzen ere, zuk zeuk erabaki behar duzu zer jakin dezaketen besteek zutaz eta zer informazio gorde nahi duzun zeuretzat.

ZURE AUKERAK

Zeuk bakarrik erabaki behar duzu zer partekatu nahi duzun eta norekin. Medikukonsultan, esate baterako, inor gutxi auzartuko da denen aurrean ozenki esaten HIESaren froga egitera doala, batez ere itxarongela jendez beteta badago eta denak adi-adi badaude. Gutxi egongo dira prest biluzik ageri deneko argazkiak SMS bidez bidaltzeko, jakinda bidali bezain azkar neska-lagunak edo mutil-lagunak, irakasleek edo senideek jaso ditzaketela. Inork ez du gogoko beste batek bere kontu pribatuetan muturra sartzea.

ZURE MUGAK


Denok dugu norberarentzat bakarrik den esparru baten beharra, besteek beti errespetatu behar dutena bertan muturrik sartu gabe; eta esparru hori ez da denontzat berdina. Pribatua zer den zehazteko orduan, lagun talde bakoitzak bere iritzia du. Are gehiago: kontu pribatuen aurrean ditugun jarrerak aldatuz doaz. Seguruena, zure aurrekoek atea itxita esan-egin izan dituzten zenbait gauza zuk lasai-lasai egiten eta esaten dituzu, hainbeste pentsatu gabe. Zenbaitetan, anonimatuaren egon nahi dugu. Horregatik, ziurtasun osoa izan behar genuke inork ezin duela guri buruzko edozer jakin edo ikusi. Horrexegatik joan gaitezke medikuarenera eta inork ez jakin han izan garenik. Arrazoi beragatik, komunera joaten garenean ere, ez dugu zertan izan kamera bat grabatzen.

Atea ixteko eskubidea duzu eta zeuk erabakitzen duzu nor sar daitekeen eta nor ez.

ZUK ZER USTE DUZU?



- Familiak zuri buruzko gauzak jakiteko eskubidea du, baina non dago muga?
- Gelako tiraderetan zer daukazu jakiteko eskubidea ere badu?
- Bidezkoa da zure ordenagailuan sartzea, zein web-orri ikusten dituzun begiratzeko?
- Zure ustez, zein da adin ego-kia familiak egiten duzun guztia-ri buruzko informazioa eskatze-ari uzteko?
- Uste duzu goiko adibide horie-tako bakoitzerako adin-muga jakin bat beharko litzatekeela? Baietz uste baduzu, non jarriko zenuke muga?



ARIKETA

Pribatua izan behar duenaren eta publiko egin daitekeenaren aurrean dugun **jarrera aldatu egin da**

- **Bilatu** telebistan, Interneten, egunkarietan eta aldizkarietan erakutsi dituzten **hainbat egoera**, zure ustez, duela 20 urte inondik inora agertuko ez zirenak, garai hartan “pribatutzat” joko zirelako.
- **Frogatu** nola aldatu diren mugak. Non uste duzu daudela gaur egun mugak?
- **Azter ezazu** ea orain ematen duzun informazio pribatuak zer-nolako eragina izan dezakeen etorkizunean zure bizitzan.

DATU PERTSONALEI BURUZKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen xedea zuri buruzko informazioa begirunez erabiltzen dela ziurtatzea da. Lege honen eginkizuna pertsonak babestea da, datu pertsonalak prozesatzen direnean ez dadin urra pribatutasunerako eskubidea.



ADOSTASUNA


Berez inork ez du zure datu pertsonalik erabiltzeko baimenik, zuk zeuk ez baduzu lehenago ados zaudela adierazi; hau da, ados zaudela adierazi behar duzu beste batek zure datuak erabil ditzan. Adostasun-adierazpenak borondatezkoa izan behar du eta nahi duzualako. Bestalde, nahi duzunean baliogabetu dezakezu adostasun hori.

Horixe da araua, baina salbuespenik ere bada. Adibidez, zenbait testuingurutan, udalek, foru aldundiek edo gobernuko sailak zure datu pertsonalak erabil ditzakete zure adostasuna eskatu beharrik gabe. Arau orokorrak dio 14 urte betetzen dituzunean baimena eman dezakezula zure datu pertsonalak bildu eta erabil ditzaten. 14 urte bete gabekoa bazara, inork zure datu pertsonalak erabili nahi baditu, zure legezko tutoreen baimena behar du. Hala ere, nahiz eta 14 urte beteta izan, zenbait jardueratarako nahitaez behar du tutoreen adostasuna; adibidez, bankuko kontu bat irekitzeko.

DATU PERTSONALAK

Datu pertsonal bat pertsona jakin batekin lotzen den datua da. Adibidez, izena, adina, helbidea eta telefono-zenbakia datu pertsonalak dira, baldin eta pertsona jakin batekin lotzen badira. Pertsona bat identifikatzeko moduko irudi bat ere datu pertsonal mota bat da, nahiz eta irudian izenik agertu ez.

Zure NAN-zenbakia eta Gazte-txartelaren zenbakia ere datu pertsonalak dira.



ZURE ESKUBIDEAK

- Zure datu pertsonalak ematen badituzu, eskubidea duzu jakiteko nork gordeko dituen, zertarako erabiliko dituen, inori emango dizkion, eta, hala bada, nork eskuratuko dituen.
- Eskubidea duzu jakiteko besteek zuri buruzko zein datu dauzkaten, informazio hori zertarako erabiliko duten eta nola eskuratu duten.
- Informazioak akatsen bat badu edo oso-oso ez bada, zuzentzeko eska dezakezu.
- Hasierako helburua betetzeko behar ez diren datuak ezabatu egin behar duzue.

HORRELA KOAK ERE GERTATZEN DIRA!

ESKAINZA-ZAPARRADA

Disko-denda bateko betiko bezero gazte batek bezero-txartel bat eskuratu zuen erosketetan deskontuak lortzeko. Txartela eskatu zuenean agiri bat izenpetu zuen "letra txikia" irakurri gabe, eta horren ondorioz, disko-denden kateak merkataritza-eskaintzen informazioa bidaltzeko aukera zuen. Harrezkero, era guztietako eskaintzak egiten dizkion korrespondentzia eta telefono bidezko mezuak jasotzen ditu. Hainbeste mezu ez jasotzeko, bere datuak nori laga zitzaizkion esateko eskatu zion dendari, eta datuak lagatzeko adostasuna baliogabetu zuen.

Iturria: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

ARGAZKIAK ESKOLAKO URTEKARIAN

Eskolako aldizkariko kirol-jardueren atalean ikasle bat ageri zen konpromisozko mezu bat zuen kamiseta bat jantzita. Ikastetxeko inork ez zien eskatu ez gurasoei ez ikasleari argazkia aldizkarian ateratzeko adostasuna. Ikasleak eta bere gurasoek informazio hori ezerezteko eskatu zuten, eta ikastetxeak kendu egin behar izan zuen argazkia urtekaritik.

Iturria: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

ESKOLAK GUZTIZ ASPERGARRIAK IZAN DAITEZKE. HORREGATIK, GUZTIZ TENTAGARRIA IZAN DAITEKE PANTAILAREN ATZEKO ALDEAN EZKUTATZEA ETA ZER EDO ZER DIBERTIGARRIAGOA TOPATZEA. BAINA, NAHIZ ETA IZKINA BATEAN JARRITA EGON ETA INOR EZ IZAN ATZEAN, JENDE ASKO EGON DAITEKE EGITEN ARI ZARENA IKUSTEN.

Datu pertsonalen babesa pertsonen bizitza pribatuari dagokion funtsezko babesa da



BA AL DAKIZU NOR DAGOEN ZURI BEGIRA? NOR DAGOEN ZURI BEGIRA?


Badirudi Interneten ibiltzea eta txateatzea kontu pribatuak direla, eta jendeak bakea eta lasaitasuna nahi du horrelakoetan, eta batez ere etxean egiten du. Erraz ahazten zaigu, ordea, teknologiaren munduan, sarri, ateak zabal-zabalik egoten direla.

JAKITEN ERRAZA

Zuk bidaltzen dituzun posta elektronikoak hartzaile egokiengana hel daitezen eta bisitatu-zen dituzun web-orriak "zure" ordenagailura hel daitezen, ordenagailuak helbide elektronikoko bat izan ohi du esleituta (IP helbidea). Institutu eta ikastetxe gehienek eta etxeko ordenagailu askok ere su-ebakiak izaten dituzte birusengandik eta hackeren mutur-sartzeetatik babesteko. Eta babesteaz gain, ordenagailu bakoitzaren IP helbidea jakiteko ere balio dute, eta ordenagailu bakoitzetik zein web-orri ikusi diren jakiteko eta bisiten maiztasuna eta iraupena jakiteko ere bai. Ikusten dituzun web-orriak erregistratu egiten dira zure nabigatzailearen historialean, eta gorde egiten dira hurrengo batean berriro web-orri horietan sartu nahi baduzu, azkarrago ekartzeko. Nabigatzailearen historiala ez baduzu ezabatzen, oso erraza da edonorentzat jakitea zenbat denbora egon zaren konektatuta. Gainera, baimenik gabeko pertsonak ikusi ahal dituzte jaso eta bidali dituzun posta elektronikoak. Ezagunen batek edo hain laguna ez den beste batek zure pasahitza lortzen badu, zuri bakarrik dagokizun informazioa eskuratu ahal izango du, eta hori guztiz desatsegina eta deserosoa izan daiteke zuretzat.

ERANTZUKIZUNA ETA ARAUAK

Gehienetan ez du garrantzi handirik beste batzuek ikustea egunean zehar edo eskola-ordu batean zer egin duzun. Baina beste askotan ez da komeni izaten. Horregatik, institutuek araututa izaten dute ikasleek eta irakasleek nola erabili behar dituzten ordenagailuak. Hala ere, zuk zeuk ere egiten duzunaren gaineko erantzukizuna hartu behar duzu. Ez da erraza jakitea baten bat zu espiatzen ari den konektatuta zaudenean. Ordenagailuaren aurrean bakar-bakarrik zaudenean, anonimatu zaudela pentsa dezakezu, eta ez zaizu burutik ere pasatuko baten bat egon daitekeenik egiten ari zarena ikusten. Baina horrek ez du horrela funtzionatzen ... **Konektatu zaudenean ez zara anonimoa.**



ZUK ZER USTE DUZU?



- Nork izan beharko luke ikastetxean erabiltzen duzun ordenagailuko informazioa eskuratzeko aukera? Irakasleek? Ikaskideek? Gurasoek?
- ¿Zer ikusteko aukera izan behar dute, eta informazio hori nola erabili behar dute?
- Ikastetxeak ikusten badu *bullying*-kasuren bat gertatzen ari dela bertako sarearen bidez, zuzendaritzak sisteman sartzeko aukera izan behar ote du gertatzen ari dena aztertzeko eta tartean nor dauden jakiteko?

ARIKETA

- Hitz egin gurasoekin, irakasleekin eta ikaskideekin ea nola eta zein baldintzetan:
 - Ezabatu nabigatzailearen historiala
 - Ezabatu aldi baterako fitxategiak ("Interneteko" aldi baterako fitxategiak)
 - Aldatu nabigatzailearen pribatutasuneko konfigurazioa
- Zure ikastetxean ba al dago ekipo informatikoak nola erabili behar diren dioen **araurik**? Ikastetxeak edo irakasleek ekipo informatikoak nola erabiltzen dituzuen **kontrolatzeko araurik ba al dago**? **Proposa itzazue** arauak eta eztabaidatu ikasgelan.

BA AL DAKIZU

DENA BEGIEN BISTAN

Historialaren bidez edo testuen, irudien edo mezuen aldi baterako fitxategien bidez, edonork jakin dezake zein web-orri ikusten aritu zaren. Aldi baterako fitxategiak ez dira berez ezabatzen ordenagailua ixten dugunean. Zuk zeuk ez baduzu haien edukia ezabatzen, edonor

ibil daiteke ikusmiran ea zer egiten duzun sarean. Leku publikoetako ordenagailuak erabiltzen dituzunean —adibidez, ziberkafetegri batekoak— askoz ere aukera gehiago dago edozeinek ikus dezan zuk kontsultatutako informazioa.

NOLA JAKIN DEZAKETE NOR NAIZEN?

Internetera konektatzen zaren bakoitzean, IP helbide bat esleitzen dizute. Interneteko sarbidearen hornitzaileak erregistratu egiten du noiz konektatzen zaren eta saio bakoitzean zein IP helbide esleitu zaizun. Web-orriek ere bertan sartzen diren ordenagailu guztien IP helbideak erregistratzen dituzte. Poliziak ikertu nahi duenean ea nork ikusi duen web-orri jakin bat, web-orri horrek daukan erregistroak kontsulta ditzake, eta horretaz gain, Interneteko sarbidearen hornitzaileari ere eska diezaioke une jakin batean IP helbideak erabiltzen ari ziren erabiltzaileen erregistroa. Web-orri askok jakin nahi dute ea nor sartzen diren bertan, eta hori jakiteko, fitxategi txiki bat (cookie) gor-

detzen dute zure ordenagailuan. Web-orri hori ikusten duzun bakoitzean, web-orriak ea zure ordenagailuak cookiearik ba ote duen egiaztatzen du, eta baldin badauka, bertako informazioa erregistratzen du; esate baterako, erabiltzaile-izena eta web-orrian sartzeko erabilitako pasahitza. Cookieak sortzeko baimena ukatu diezaiekezu web-orriari. Horretarako, nabigatzailearen pribatasunerako konfigurazioa egokitu baino ez duzu egin behar. Baina hori eginez gero, gerta daiteke web-orriren bat behar bezala ez ibiltzea. Beraz, erabaki behar duzu zuretzat zer den garrantzi-tsuagoa, zure datu pertsonalak babestea ala erabilerratasuna.



IKASTETXEAK ZER KONTROL-ESKUBIDE DITU?

Arau orokor moduan, esan behar da institutuak ezin duela sistema informatikoaren erregistro-funtzioa erabili ikasleek Internet nola erabiltzen duten kontrolatzeko. Erregistroaren helburua sistema informatikoa behar bezala erabiltzen dela ziurtatzea da. Beraz, erabil daiteke erregistroa erabilera desegokiak argitara emateko. Horrelakorik gertatuz gero, ikastetxeak erregistroko informazioa

erabil dezake gertatu den erabilera desegokia geldiarazteko ohartarazpenak bidaltzeko. Ikastetxe bakoitzak erabakitzen du zer den Internet gaizki erabiltzea. Garrantzitsua da ikastetxeak arau zehatzak eta argiak ematea, ikasleek jarraibideak ongi erabil ditzaten.

NOR DAGOEN ZURI BEGIRA?

HORRELAKOAK ERE GERTATZEN DIRA!



IKASTETXEKO SAREAN HARRAPATUTA

Norvegiako ekialdeko ikastetxe bateko zenbait ikaslek on-line ikasteko "It's learning" izeneko plataforma gaizki erabili zuten. Txatean mehatxuzko mezu batzuk erregistratu zituzten. Mezuak goitizenerkin bidali zirenez, zaila izan zen argitzea ea nork bidali zituen. Hori dela eta, aretoa itxi egin zen. Baina arazoak bere horretan jarraitu zuen posta elektronikoaren bidez. Zuzendaritza konturatu zen erabiltzaileen izenak eta pasahitzak lapurtzen ari zirela. Azkenean, parte hartu zuten pertsona guztiak identifikatu zituzten eta ikasle batzuei debekatu egin zitzaizen posta elektronikoak bidaltzea.

Iturria: Romerikes Blad

JATORRIZKO LANAK ALA INTERNETEN KOPIATUTAKOAK?

Zentzuzkoa dirudi egiaztatzea ea ikasle batek egin-dako lana originala den ala Internetetik kopiatua, baina horretarako ez dirudi bidezkoa denik ikasleak erabili duen ordenagailua kontrolatzea, bertan ikus-tekto ea Interneteko zein lekutan sartu den. Horrelakoetan egin behar dena da, lana egiteko erabili dituen erreferentziak eskatu ikasleari.

Iturria: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa




Jolasean ari nintzen ...

... eta «intro» tekla sakatu nuen nahi gabe!

Normalean ez zara ibiltzen zure neska-lagunak dedikatutako argazkiak mutil ezezagunen artean banatzen eta zein ederra den esaten, ezta? Ez zaizu burutik pasatzen, ezta ere, Gabon Zaharretako parranda bidez grabatu eta Gabonetan aitari edo amari oparitzea, ezta? Eta ezagutzen duzun norbaiti buruzko gauza desatseginak entzuten badituzu, ez diozu horren berri ematen irakasleari edo ikaskideei haien arreta erakartzeko, ezta?

Seguru ezetz ...

Zuk zeuk erabakitzen duzu zer jakin dezaketen besteek.



KAIXO!
 HEMEN NAGO! SAR
 ZAITEZ NIRE WEB
 ORRIRA! BEGIRA
 NAZAZU! MESSENGEREN!
 YOUTUBEN! MYSPACEN!
 BEGIRA NAZAZU!
 EMADAZU ZURE BOTUA!
 INTERNET IZUGARRIA
 DA. AUKERA MORDOA
 ESKAINTZEN DITU:
 NORBERAREN WEB-
 ORRIA SOR DAITEKE ETA
 BESTEENAK IKUSI, MUSIKA
 ETA PELIKULAK JAITS
 DAITEZKE, LAGUNEKIN
 TXATEATU MSMEAN,
 IRUDIAK PARTEKATU ETA
 NORBERAREN SEKRETU
 INTIMOENAK KONTATU.
 BAINA, ALDI BEREAN,
 INTERNET GUPIDAGABEA ERE
 BADA.
 INTERNETEN ZERBAIT ESAN EDO
 EGITEN BADA, EZINEZKOA DA
 "DESEGIN" TEKLA SAKATZEA. EZ
 DAGO ATZERABIDERIK.

Denok nahi dugu nabar-
 mendu. Horretarako, bat-
 zuek reality showetan har-
 tzen dute parte eta beste
 batzuek web-orriak edo
 blogak sortzen dituzte eta
 beren argazkiak edo be-
 raiei buruzko informazioa
 zintzilikatzen dute bertan.
 Aukeratzen duzun bidea
 aukeratzen duzula, jende
 ezaguna nahiz ezezaguna
 erakar dezakezu.



ERANTZUKIZUN HANDIA

Egunkariak editatzen dituzten enpresak in-
 pri-matzen dituzten eta Interneten jartzen dituzten
 testuen eta irudien erantzuleak dira. Nahita
 esaten diren gezurrek, irainek, legez kanpoko
 irudiek edo arrazakeria oso kaltegarriak izan
 daitezke eta isunak edo kartzela-zigorak ere
 ekar ditzakete. Prentsa-elkarteek jarraibide
 etikoen bildumak egiten dituzte kazetari-entzat.
 Jarraibide multzo horiei kode deontologiko edo
 lanbideko kode ere esaten zaie.
 Egunkari bat editatzen duen enpresa egunka-
 riaren eran-tzulea bada, Interneten bidez bi-
 daltzen duzun guztiaren erantzulea zeu zara,
 berdin-berdin. Beraz, ondo pentsatu behar
 duzu zer bidali nahi duzun, informazio horrek
 zuri buruzko datuak eta, beharbada, beste bat-
 zuei buruzkoak dauzkalako. Berdin gertatzen
 da irudiekin. Arduratsu jokatu behar duzu blo-
 getara nahiz beste web-orri batzuetara bidalt-
 zen dituzun gauza guzti-ekin. Zuretzat txantxa
 bat baino ez dena, guztiz kaltegarria izan dai-
 teke beste batzuentzat.

ZEU ZARA ZEURE BURUAREN EDITOREA ZEURE BURUAREN EDITOREA

ZUK ZER USTE DUZU?



EZIN DA DESEGIN, BERANDUEGI DA

Norberaren buruari buruzko irudiak
 eta informazioa bidaltzea dibe-
 rigarria izan daiteke. Etxean zau-
 denean ordenagailuaren aurrean
 eserita, horrelako gauzak egitea
 guztiz ohikoa izan daiteke. Tes-
 tuinguru horretan, ordea, lausotu
 egiten da eremu pribatukoak diren
 eta besteekin partekatze-ko mo-
 dukoak diren gauzen arteko muga.
 Behin Internetera bidali badira, ez
 da erraza bidalitako testu eta irudi
 horiek berreskuratzea, eta ia ezi-
 nezkoa da horiek kopiatu ditzaten
 galaraztea. Gerta daiteke zure iru-
 diak edo zuri buruzko informazioa
 agertzea daudenik ere ez dakizun
 web-orrietan, eta, gainera, inondik
 inorako harremanik ere nahiko ez
 zenukeen web-orriak izatea.
**Pentsatu ondo, "intro" tekla sakatu
 aurretik**

- Inoiz damutu izan zara zuri edo beste batzuei buruzko zer edo zer sarera bidali izanaz? Horrelakorik gertatu bazaizu, zertaz damutzen zara?
- Zergatik uste duzu bidaltzen dituztela batzuek euren irudiak Tuenti, Youtube, MySpace, Facebook eta gisako sare sozialetara edo web-orrietara?

ARIKETA

- Sar ezazu zure izena edo linearako erabili ohi duzun ezizena bilatzaile baten bilaketetarako eremuan.
 - Zer aurkitu duzu?
 - Zure ustez, ondo islatzen du nor zaren?
 - Zergatik? eta zergatik ez?
- Lor ezazu kazetari-ekin erabiltzen duten kode deontologiko edo lanbideko kode baten kopia.
- Sor ezazu zeuretzako kode etiko bat, eta jaso bertan lineatik bidaltzeko erabiliko dituzun jarraibideak.

BETIKO DA

Interneten zintzilikatutako irudiak eta informazioa ezaba daitezke, baina sarritan ezinezkoa izaten da behin betiko ezabatzea. Izan ere, gerta daiteke jadanik baten batek jaitsita izatea informazio edo irudi horiek eta ordurako beste web-orri batzuetara bidalita egotea edo hainbat bilatzailetan biltegiratu egotea.

BENETAKO BAIETZA!

Pertsona identifikagarriren baten irudiak linean jarri aurretik, nahitaez lortu behar duzu pertsona horren edo horien benetako BAIETZA. Baina une jakin batean esandako BAI batek ez du betiko balio. Baten batek hasiera batean baietz esan arren, gero iritziz aldatzen badu, derrigortuta zaude dena delako argazkia kentzen laguntzera.

EZABA EZAZU!

Honako lerro hauetan azaltzen dizugu nola ezabatu norberari buruzko informazioa saretik:

1. Hitz egin informazioa argitaratu zuen pertsonarekin.

Ikus dezakezu nork zintzilikatu zuen zuk ezabatu nahi duzun informazioa? Jarri berarekin harremanetan eta eska lezaiozu informazioa ezabatzeko. Zenbat eta azkarrago egin, orduan eta hobeto.

Arazoa ez da konpondu?

2. Hitz egin Interneteko zerbitzuen hornitzailearekin.

Jar zaitez harremanetan Interneteko zerbitzuen hornitzaileak daukan erabilera okerren aurkako arduradunekin. Horiek lagun zaitzakete. Arduradunekin harremanetan jartzeko, domeinuaren izenaren jabearekin jarri behar duzu harremanetan (adibidez: http://es.youtube.com/t/contact_us). Edozein domeinuren jabea nor den jakiteko, hemen begira dezakezu: <http://www.red.es>

ZEU ZARA



ZEURE BURUAREN EDITOREA

HORRELAKOAK ERE GERTATZEN DIRA!

BERE IRUDIA IKUSI ZUEN WEB NAZI BATEAN

Neska batek berari buruzko irudiak bidali zituen bere gustuko lagunekin harremanetan jartzeko erabiltzen zuen web-orri batera. Argazkiak trukatzeko eta argazkilaritzari buruzko trukuei buruzko web-orri bat zen. Handik hilabete batzuetara, bere irudi bat ikusi zuen web arrazista batean. "Norvegiako neska ederrak" izenburupean, 122 neskaren irudiak zeuden (berea barne). Haietako inork ez zeukan web-orri horren berri eta argazkien azpian honako hau jartzen zuen: "arrazia nordikoa maite dutenentzako irudiak ...". Haietako irudi asko argazkien web-orritik hartu zituzten eta web nazian hainbat hilabetean egon ziren neskek ezer jakin gabe.

Iturria: Datuak Babesteko Norvegiako Agentzia (The Data Inspectorate)

BILUZIK DENEN BEGIEN BISTAN

16 urteko neska bat webcam baten aurrean egon zen senargaiarentzat posatzen. Aste pare bat geroago, mundu guztiak ikus zezakeen neska YouTube. Hasieran denbora-pasa dibertigarri hutsa zena, amesgaizto lagarria bihurtu zen. Hemeretzi ordu igaro orduko, 600 pertsonak ikusita zeuzkaten irudiak. Neskaren aitak poliziarengana jo zuen irudien banaketaren berri emateko eta polizia kasua ikertzen ari da.

Iturria: Expressen.se

"EZIN DUT GEHIAGO"

Pasa den udan lagunok jai bat antolatu genuen, gure adineko gazte gehienek bezala. Primeran pasatu genuen eta jende berria ezagutu genuen. Argazki pilo bat atera genituen eta Interneteko web-orri batean jarri genituen. Pasahitza ere bageneukan! Ezinezkoa zen ezer txarto ateratzea. Baina, ikasturte-hasieran ikastetxera itzuli ginenean, jendeak "festei buruzko web-orri" batez hitz egiten zuen, eta gero eta jende gehiago zebilen web-orrian sartzeko pasahitza lortu nahian. Sekulakoa gertatu zen argazkiak jartzeko erabili genuen web-orriarekin. Bat-batean denek ikus zitzaizkaten argazkien orriak. Gure ezagun batzuk etxekoei kontatzen hasi zirenean hasi zen gure amesgaiztoa. Azkenean, ama bat ikastetxearekin harremanetan jarri zen eta dena azaldu zuen. Irakasleekin eta orientatzaileekin hitz egin behar izan genuen. Ikastetxetik nire familiarri ere deitu zioten, baina, zorionez, etxekoei nire nerabegaroko pasadizo bat baino ez zitzaizkaten iruditu. Okerrago izan zen beste ikasleei gertatu zitzaizkiena. Bazekiten, denek zekiten. Duela urte bete eskolan hasi nintzenean oso ondo pasatzen nuen. Orain, ordea, izututa nago. Hori guztia ikasbidea izan da niretzat: ez dut sekula ezer bidaliko web-orri batera. Orain, iruditzen zait bideokamera bat dudala atzetik segika egun osoan.

Iturria: Aftenposten, irakurle batek idatzia oharren atalean (Si; D-laburtua-).

Arazo larriak dituzu?

3. Ertzaintzara jo dezakezu

Zure ustez informazioa kontuz ibiltzekoa bada eta berehala kendu beharrekoa bada, etxetik hurbilen duzun Ertzaintzaren komisariara jo beharko duzu. Esaiezu zer gertatzen den!

Zer egin daiteke arazoak hain larriak ez badira?

4. Jar zaitez harremanetan Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin.

Egokia ez den informazioa kentzeko laguntza eska diezaiokezu. Erakunde horrek datu pertsonalen babesarekin zer ikusia duten bestelako gai batzuei buruzko laguntza ere eman diezazuke (www.avpd.es).

ERNE MOTO GORRIA DUENAREKIN JOSU DU IZENA ETA BORTXATZAILEA DA. PASA EZAZU: ERNE MOTO GORRIA DUENAREKIN, JOSU DU IZENA ETA BORTXATZAILEA DA. PASA EZAZU: ERNE MOTO GORRIA DUENAREKIN, JOSU DU IZENA ETA BORTXATZAILEA DA. PASA EZAZU: ERNE MOTO GORRIA DUENAREKIN, JOSU DU IZENA ETA BORTXATZAILEA DA...

Norberaren datu pertsonalak babesteak esan nahi du arauak eta mugak daudela inork ez dezan erabil nahierara norberari buruzko informazioa.

NORBAITEK SUNTSI DEZAKE ZURE OSPE ONA!

Txutxumutxuak sua bezain azkar hedatzen dira testu bidezko mezuen bidez. Litekeena da Josu bortxatzailea izatea. Behar bada kontuz ibili behar da berarekin. Baina nork bidali zuen lehendabiziko mezua? Ondo dago horrelakoak bidaltzea? Agian Josu ez da bortxatzailea eta agian egin duen gauza bakarra beste bati neska-laguna kentzea izan da, eta beste horrek mendekua hartu nahi du.



GELDIARAZTEA EZINEZKOA DA

Zurumurru bat zabaltzen hasten bada, oso zaila egiten da gelditzea. Mugikorretik irudi bat bidali ondoren, ez duzu eta ez dago hori konponduko duen "desegin" erako teklarik. MSNtik irten ondoren, berandu da esateko ez zenuela horrelakorik esan nahi. Baten batek ikusten baditu ikastetxeko irakaslerik okerrenaren kontra linean jarri zenituen gezurrezko salaketak, zigorren bat jaso dezakezu. Jende gehienak ezin du irudikatu ere egin Internet eta telefono mugikorrik gabe bizi daitekeenik. Mundua gero eta txikiagoa da eta lagun arteak, ordea, gero eta handiagoak. Telefono mugikorrek eta Internetek aurreko belaunaldiek ezagutu ez zituzten aukera zoragarriak eskaintzen dituzte. Baina, aldi berean, elkarri min egiteko gaur arte sekula ikusi ez diren aukera izugarriak ere bai. Gai honi buruz egin diren ikerketek

frogatu dute Internet eta telefono mugikorraren bidezko jazarpena eta mehatxuak arazo handia bihurtu direla gazteen artean. Ikasleek bata bestea zirikatzen dute ikastetxeko patioan elkar jotzeko. Beste batek liskarra grabatzen du mugikorrarekin eta hartutako irudiak Interneten jartzen ditu. Beste batzuetan, kristoren mozkorra harri-patu duen bat konbentzitzen dute kamera baten aurrean biluztu dadin eta hurrengo egunean irudiak mundu guztiak ikusteko moduan agertzen dira Interneten edo mugikorretan. Beste behin, Mamenekin haserretuta zegoen lagun batek identitatea lapurtu zion bere lagunei mezu desatsegin bat bidaltzeko eta bidaltzaile moduan Mamenen zembakia jarri zuen. Internet eta testu bidezko mezuak dira edozein mezu hedatzeko modurik eraginkorrena. Onerako nahiz txarrerako.

ERABILI BURUA

Ordenagailuaren aurrean jarrita egon ala telefonotik hitz egiten zutik egon, zuk zeuk bakarrik erabaki dezakezu, eta ez beste inork, zer nahi duzun besteekin partekatu. Zure ardura da inori buruzko informazioa edo gezurrak bidali aurretik, egin nahi duzuna ondo baino hobeto pentsatzea

Ez egin mundu birtualean benetako bizitzan egingo ez zenukeena.

DEZAKE ZURE OSPE ONA!

ZUK ZER USTE DUZU?




- **Batzuek diote** Interneten bidez eta telefono mugikorraren bidez errazagoa dela inor belurditzea. Zuk zer uste duzu?
- **Pentsa ezazu** orain arte zelako mezuak eta irudiak bidali edo birbidali dituzun. Zure ustez, horietako mezu edo irudiren bat norbait iraintzeko modukoa izan zitekeen? Zergatik? Nola?
- **Zer egiteko edo esateko aukera izan duzu** on-line bidez eta benetako bizitzan ez zenukeen sekula esan edo egingo?
- **Inoiz bidali du baten batek zuri buruzko informaziorik sarera?** Horrelakorik gertatu bada, aurretik baimena eskatu zizuten?

ARIKETA

- **Sar zaitetz YouTube** edo antzeko beste web-orriren batean. Ikusi duzu hor baten bati kalte egin diezaiokeen irudirik, eta, hain zuzen ere horrexegatik beragatik, hortik kentzeko modukoa denik?
- **Aztertu zeure** web-orria edo *bloga* edo gelako lagunena batena. Han aipatuta edo argazkiren edo bideoaren batean agertzen diren pertsonak ikusita, zure ustez, pertsona horiek informazio hori jartzeko baimena eman dute?

BIDALTAILE FALTSUA

Telefono mugikorrean jasotzen dituzun mezuak agian ez ditu uste duzun pertsonak bidaltzen. Hain zuzen ere, norberak nahi duen telefono-zenbakitik mezuak bidaltzeko aukera ematen duten *on-line* zerbitzuak daude. Txantxetako mezuak bidaltzea identitate faltsuarekin ez da berez legez kanpoko. Baina, mezu hori nola erabili, horrek agintzen du delitu bat den ala ez. Batentzat txantxa bat baino ez dena, beste bati mehatxua iruditu ahal zaio.



JAZARPEN DIGITALA

- 15 eta 17 urte bitarteko ikasleen % 21,9k onartzen du behin edo behin jaso izan dituela irainak edo hitz zakarrak edo arrazistak sarearen bitartez.
- Pederasten % 95ek txaten bidez ezagutzen dituzte beren biktimak (adingabekoak bortxatzen edo behartzen dituztenak dira pederastak).

Iturria: Askatasunen eta Informatikaren Batzordea. Teknologia berriei eta pribatutasunari buruzko Prometeo Azterketa.

NORBAITEK SUNTSI DEZAKE ZURE OSPE ONA!

HORRELA KOAK ERE GERTATZEN DIRA!

BORROKAK BIDEOETAN

Ikastetxeko jolastokian borrokan ari ziren. Bi ikasle borrokatzen ari ziren eta bitartean beste batzuk haiek xaxatzen. Gero eta ikasle gehiago ari ziren batzen ikuskizunaren inguruan. Askok telefono mugikorretan grabatu zuten borrokaldia eta YouTubean zintzilikatu zuten. Web-orri horretan egunero milaka eta milaka bideo zintzilikatzen dituzte. Bideo batzuetan ikasleen arteko borrokak ikus daitezke. YouTubek milioika bisita izaten ditu hilero eta milaka erabiltzailek ikusten dituzte horrelako bideoak. Bideoetan agertzen direnen baimenik gabe ezin dira bideoak on-line zintzilikatu; hori egitea legez kanpoko da.

Iturria: Dagblade. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egokitua

LEHIAKIDE BATEN AURKAKO WEB-ORRI BAT

“Anaia Nagusiaren” antzeko lehiaketa bat bukatu zen eta, lehiakideetako bat etxera itzuli zenean, ikusi zuen bi ikaskidek bere aurkako web-orri bat sortu zutela. Web-orriaren bidez, ikaskide biek bere aurkako era guztietako mezu negatiboak bidaltzeko zirikatzten zituzten han sartzen zirenak. Hemezortzi urteko neska bat zen aipatua, eta zera dio: “Han esaten zirenak ez sinestekoak ziren. Eta hori gutxi balitz bezala, web-orriak txateatzeko orri bat ere bazeukan eta han jendeak nahi zuen guztia esan zezakeen niri buruz. Horrelako gauzak irakurtzea guztiz mingarria da eta ezinezkoa da norberaren burua defendatzea. Okerrena izan zen web-orria nire ikastetxe bereko jendeak sortu zuela”. Damututa dago ez zuelako poliziarengana jo gertatutakoa salatzen. Ikastetxeko zuzendaritzak berretsi du eskola-jazarpena onartezina dela. Web-orria kendu egin zuten eta hura sortu zutenak zigortu.

Iturria: Bergens Tidende



1:12:08:07

Primeran pasatu nuen ...

... baina ahaztu egin zitzaidan bideokamera bat zegoela izkinan!

Zuk ez diozu poliziarri zure balentrien eta gaiztakerien bideorik bidaltzen zure aurrekari penalak hobetzeko, ezta? Merkataritzagune batera zoazenean ere ez zaizu burutik pasatu ere egiten komunean esertzea atea zabalik utzita, ezta? Arropa-denda bateko aldagelan bazaude, ez duzu inondik ere esaten "e, begiratu; biluzik nago!" Eta Internetetik musika legez kanpo jaisten duzunean ere ez diozu disko-etxeari gutunik bidaltzen "Kantu hau lapurtu dizuet" esateko.

Inoiz ez zenuke horrelakorik egingo, ezta? Zure esku balego, ez behintzat.

Ba al dakizu nor ari den etengabe zuri begira?

ITXI KREMAILERA.
KEN ITZAZU MAKARRAK.
EZ ZAITEZ IBILI HATZA
SUDURZULOETAN SARTZEN.
BEGIRATU EA ONDO
ORRAZTUTA ZAUDEN ETA
GALTZAK BERE TOKIAN
DARAMATZAZUN. EGIN
IRRIBARRE!
KAMERAK GRABATZEN ARI
DIRA. AIREAN ZAUDE!



ETA BETI DA ONURAGARRIA?

Bideo-zaintzak, besteak beste, bandalismoa, bortizkeria edo lapurretak prebenitzeko eta argitzeko balio dezake. Baina, hala ere, oso garrantzitsua da autobusetan, eskoletan, oinezkoentzako guneeetan eta abarretan bideo-zaintzaren zerbitzuak jarri aurretik, horrek izan ditzakeen ondorioak aztertzea. Zergatik behar dira bideo-zaintzaren sistemak? Benetan handitzen dute segurtasuna? Ondorio kaltegarrik ekar dezakete? Ba al dago horiek besteko segurtasun edo gehiago ekar dezakeen bestelako konponbiderik?

Bideokamerak jarri ondoren, ohiko delinkuentzia jaisten dela frogatzen duen daturik ez dago. Ematen du, horrelakoetan, beste era bateko indarkeria erabiltzen dela edo tokiz aldatzen dela. Horregatik guztiagatik, bideo-zaintzak segurtasunari egiten dion ekarpenaren inguruan eztabaida handia dago egun. Horretaz gain, zaintzapean egoteak pertsonengan nolako eragina duen jakitea ere oso zaila da.

SEGURUAGO OTE GAUDE KAMEREKIN? OTE GAUDE KAMEREKIN?

Bideokamerak zuri segika dabilta. Autobusean esertzen zarenean, supermerkatuara joaten zarenean, arropa-denda bateko nobedadeei begira zaude-nean, hirigunean bueltaka zabiltzanean eta, agian, baita gimnasioan sartzen zarenean ere. Segurtasunik eza da gero eta zaintza-sistema gehiago erabiltzeko jartzen den aitzakia. Autobusetako gidari gehienak eta bidaiari asko seguruago sentitzen dira ibilgailuan zaintzako bideokamerak daudela dakitenean. Gaez gasolindegia batean bakarrik dauden langileak ere lasaiago omen daude ingurua bideokameraz zainduta badago.

BETI EZ DA FIDAGARRIA

Zenbaitetan bideo-zaintzak gaizki ulertzeak ere ekar ditzake. Toki batzuetan, kamerak "gustuko ez diren" pertsonak topatzeko erabiltzen dira, pertsona horiei handik joateko esateko, nahiz eta ezer txarrik ez egin. Gehiegikeriarik egon ez dadin, kamerak jartzen dituztenek ezinbestean jakin behar dute nola jokatu behar duten eta han grabatzen dituzten irudiak legearen arabera tratatu behar direla. Horretaz gain, ikusten badugu baten batek laguntza behar duela, lagundu egin behar diogu, nahiz eta kamerak egon dena grabatzen.

Kamerek gertatzen diren gauzak grabatzen dituzte, baina gertatu beharrekoak berdin gertatzen dira.



ZUK ZER USTE DUZU?

- **Zure portaera aldatzen duzu** kamera bat zu grabatzen ari dela jakinik? Ondo iruditzen zaizu baten bat egiten ari zaren guztia ikusten egotea?
- **Leku publikoetan bideo-zaintzaren sistemak daudelako** –ikastetxeetan, autobusetan, ... –gerta daiteke inguruko pertsonen ez arduratzea? Ez ote gara ari eran-tzukizun guztia kameraren esku uzten?
- **Imajina ezazu ikasle bati** diru-zorroa lapurtzen diotela ikastetxeko aldageletan. Zure ustez, leku hori kontrolatzeko, kamerak jarri beharko lituzkete? Baietz uste baduzu, zertarako jarri beharko liriateke, delitua prebenitzeko ala egingo delitua argitzeko? Zer ondorio dauzka kamera bat jartzeak?

ARIKETA

- **Eman buelta bat auzoan.** Begiratu ea zaintza-kamerarik aurkitzen duzun. Zergatik daude hor ipinita? Zure ustez, eraginkorrak dira?
- **Noiz eta nola erabil ditzakete oker irudiak** bideo-zaintza egiten dutenek?

“Mundu guztiaren bizitza pribatuak, familia-bizitzak, etxeak eta korrespondentziak begirunea merezi dute”

Giza Eskubideen Europako Konbenioa

KAMERAK EZ DIRA BETI AUKERARIK ONENA

Erresuma Batua da bideo-zaintza gehien erabiltzen duena eta 4,2 milioi zaintza-kamera daude bertan. Leicester-eko Unibertsitateko ikertzaile talde batek aztertu zuen ea bideo-zaintzak nolako eragina zuen haiek alde zurretik hautaturiko zenbait tokitan. Azterketak argitu zuen, bideo-zaintzapeko hamalau tokietatik, bakarrik bitan jaitsi zela kriminalitate-tasa. Azterketa horren arabera, bideo-zaintzak beharbada lor dezake lapurreta gutxiago egotea ondo mugatutako tokietan (dendak edo aparkalekuak). Baina, zaila da frogatzea kaleari edo merkataritzaguneetan jarritako kamerak eragin positiborik izan dezaketenez gizartearen dagoen indarkeria murrizteko.

JENDEA KANPORA BIDALTZEN

Poliziak delituak prebenitzeko eta argitzeko erabiltzen du zirkuitu itxiko telebista bidezko bideo-zaintza. Baina, Norvegiako doktoregotesi baten arabera, gainerako esparruetan, kameraren eginkizuna gustuko ez diren pertsonak antzematea izaten omen da, dena delako tokitik bidaltzeko.

KAMERAK EDONON

Gure herrietan ere kamera kopurua izugarri handitzen ari da. Kamerak ditugu bankuetan, tabernetan, mota guztietako dendetako erakusleioetan, trafikoa kontrolatzeko guneetan, eraikin publikoetan, merkataritzaguneetan, autobus edo tren-geltokietan, garajeetan, plazetan, bai eta hondartzetan ere.



BIDEO-ZAINTZARI BURUZKO ARAUDIA

- Baten batek bideo-zaintzako kamerak jarri nahi baditu, lehendabizi, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi behar dio. Entitate pribatuak badira, ordea, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.
- Bideo-zaintza duten toki publikoetan, argi adierazita egon behar du kamerak daudela. Ezkutuko bideo-zaintza debekatuta dago.
- Debekatuta dago grabazioetan agertzen diren irudiak beste batzuei ematea, irudietan agertzen direnek baimenik ez badute eman. Poliziak, ordea, eskuratu ditzake irudiak.
- Grabatutako irudi guztiak gorde egin beharko dira eta gordetzen diren tokian baimena duten pertsonak bakarrik sartuko dira. Gordetako irudiek munta galtzen dutenean, ezabatu egin behar dira; horretarako, hilabeteko epea dago grabatu zirenetik.

SEGURUAGO OTE GAUDE KAMEREKIN?

HORRELAKOAK ERE GERTATZEN DIRA!

SALTXITXA-OGITARTEKO GEHIAGO, MESEDEZ!

Gasolindegian batean janaria prestatzeko zerbitzua ere bazuten. Nagusiak etengabe deitzen zien hango langile gazteei parrillan saltxitxa-ogitarteko gehiago jartzeko esateko. Baina nola zekien nagusiak zenbat saltxitxa-ogitarteko zeuden parrillan, bera ez bagozagoen gasolindegian?. Langileek susmoa hartu zuten jabeak gasolindegian gertatzen zen guztia bideo-kameraz grabatzen zuela eta etxetik ikus zezakeela han gertatzen zen guztia.

Bideo-zaintzako kamerak langileak kontrolatzeko erabili nahi badira, oreka bat gorde beharko da langileen intimitaterako eskubidearekin. Beraz, nahitaezkoak eta proportzionalak izan beharko dute. Beste era batera esanda, beharrezkoak eta egokiak izan beharko dute eta bideo-zaintzako sistemaren (intimitaterako oso sistema erasokorra dela kontuan hartuta) eta lortu nahi duen helburuaren arteko oreka mantendu beharko da.

Iturria: Datuak Babesteko Norvegiako Agentzia (The Data Inspectorate), Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren oharrekin.

SUSMAGARRIA

Taxi-gidari batek diru-zorrotza galdu zuen. Salmentagune handi batetik deitu zioten bere diru-zorrotza eta gidatzeko txartela aulki batean aurkitu zituztela esateko. Gidariari, zirkuitu itxiko telebista bidez hartutako irudiak ikusten utzi zioten. Irudietan, mutil gazte bat ikusten zen aulkian jarritan. Gidariak mutila ezagutu egin zuen, bere auzoan bizi baitzen. Mutilarekin harremanetan jarri zen eta diru-zorrotza lapurtzeaz salatu zuen. Mutilak dena ukatu zuen. Egia esan, irudietan oso argi ikusten bazen ere mutila aulkian eserita egon zela, horrek ez zuen frogatzen berak lapurtu zion diru-zorrotza. Gainera, salmentaguneak poliziarri baimenik ezin zizkionez erakutsi irudiak, beste inori erakusteko baimenik ez zuen eta, poliziak bideo-zaintzako prozedurak behar bezala balioesteko agindu zion salmentaguneari.

Iturria: Datuak Babesteko Norvegiako Agentzia (The Data Inspectorate)

IKASTETXEAN GRABATUTA

Valentziako ikastetxe bateko ikasleei hatz-marka bidezko sarbide-kontrol bat jarri zieten, eta horretaz gain, ikastetxean zeuden bitartean, grabatu egiten zituzten. Ikastetxeko zuzendaritzak adierazi zuen 24 kamera jarri zituztela, horietatik 23 denentzako guneetan, armairuetan, jolastokirako irteeretan eta bat nesken bi komunetan parean, "gune gatazkatsutzat" jotzen zutelako, lehendik ere kalteak egon zirelako bertan. Datuak Babesteko Bulegoak gehiegizkotzat jo zuen komunetan bideo-kamerak jartzea eta datu biometrikoak erabiltzea ikastetxean sartzeko.

Iturria: EL PAIS egunkarian agertutako berria, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak laburtua

ZEUK ERABAKITZEN DUZU NORI ETA NOIZ DEITU. BAINA TELEKOMUNIKAZIOETAKO OPERADOREAK DENA ERREGISTRATZEN DU. ZEUK ERABAKITZEN DUZU NON ETA ZERTARAKO ERABILI ZURE KREDITU-TXARTELA. BAINA BANKUAK DENA ERREGISTRATZEN DU. ZEUK ERABAKITZEN DUZU ZER BILATU NAHI DUZUN GOOGLÉN. BAINA BILATZAILEAK DENA ERREGISTRATZEN DU. EGUN BAKAR BATEAN ARRASTO MORDOA UZTEN DUZU ETA JENDE ASKO IBIL DAITEKE HORIEN ATZETIK.

2001eko irailaren 11: terrorista batzuek bi abioi gidatu zituzten New Yorkeko World Trade Center eraikinaren kontra. Mendebalde osoa dardara batean jarri zen, beste eraso terroristaren bat gerta zitekeelakoan. Horrelako eraso gehiago edo bestelako jarduera terroristak batzuk prebenitzeko, ordura artekoak baino segurtasun-neurri zorrotzagoak jarri ziren (pasaporte berriak, telefonozko entzuketa gehiago, telefono mugikorren lokalizazioak eta Interneteko trafikoaren kontrola).



ERABILERA ALA GEHIEGIZKO ERABILERA

Gero eta beldur handiagoa diegunez bai terrorismoari bai bestelako delituei, aldatuz joan gara garai batean kontrol- eta zaintza-arloan onartuko genituzkeen mugak. Eta, garapen teknologikoak erraztu egiten du bidea. Jende gehienak uste du arakatze elektronikoak onuragarriak direla delinkuentziari aurka egiteko. Baina, hala ere, ondo al dago agian etorkizunean egin dezakegun delitu baten susmagarri izatea guztiok? Orain arte ezinezkoa izan da gutako bakoitzari buruzko hainbeste informazio biltzea. Eta hainbeste informazio esku artean izatean, litekeena da informazio hori guztia behar ez den bezala erabiltzeko tentazioa izatea baten baten. Aztarna elektronikoak gure gustukoak ez diren helburuetarako erabiliak izan daitezke: adibidez, merkataritzako entitateek marketin- eta salmenta-helburuetarako erabil ditzakete aztarna horiek.

ASMO ONAK

Jende mordo bat dago zuri buruzko informazioa biltzen, zerbitzu hobe eskaintzeko. Adibidez, Gizarte Segurantzako eta ikastetxeko datu-baseetan erregistratuta zaude, zerbitzu publikoez hobeto goza dezazun. Polizia- eta justizia-sistemak ere informazioa bildu beharra daukate eta aztarna elektronikoak segitu beharra, delituak ikertzeko eta delinkuenteak kartzelaratzeko, eta horrela, pertsonak salbatzeko eta legea eta ordena soziala mantentzeko. Argi araututa egon behar du inori buruzko informazioa biltzeko eskubi-deak: nola erabil daitezkeen informazio hori eta zenbat denbora egon daitezkeen informazioa gordeta. Helburu baterako gordetako informazioa ezin da besterik gabe beste testuinguru batean erabili. Egiten ditugun gero eta gauza gehiago grabatzen dira. Gero eta toki gehiagotan egiten dugu topo zaintzako kamerekin. Baten bat guri begira ari da eta guri buruzko informazioa pilatzen ari da, nahiz eta ezer txarrik ez egin. Batzuek ez dute hori gogoko, nahiz eta ezkutatzeko moduko ezer ez egin.

Horrelako zaintza, kasu guztietan onaral daitezke?

BATEN BAT DABIL ZURE AZTARNEI SEGIKA DABIL ZURE AZTARNEI SEGIKA

Zuk zer uste duzu?



- **Pertsona guztiak zaintzapean dituen gizarte bat hobe ote litzateke,** hala, delitu gutxiago egongo litzateke-elako? Ados al zaude horrekin?
- **Haur jaio berri guztiei ADN proba egitea** eta ADN datu-base bat sortzea baliagarria izan daiteke etorkizunean egon daitezkeen delituak argitzeko? Zure ustez, egokia izango al litzateke gurean horrelako datu-base bat sortzea? Zein motatako arazoak sor daitezke?

ARIKETA

- **Idatzi zerrenda batean zure ustez zuri buruzko informazioa jaso duten erakundeen izena.** Jaso, bai merkataritza-arloko erakundeen izenak (Internet-hornitzaileak, telekomunikazioetako konpainiak, gimnasioak, bankuak ...), bai erakunde publikoen izenak (udala, aldundia, gobernuko sailak, Osakidetza, ospitaleak, institutua eta abar). Uste zenuen baino luzeagoa atera al zaizu zerrenda?

FITXATEGIEN ERABILERA PARTEKATUA KONTROLAGARRIA OTE DA?

Musika edo filmak jaiste, horretarako legezko baimekin gabe, legez kanpoko da. Musika eta filmen gaineko eskubideen jabeek diru kopuru handia galtzen dute, jendeak, ordaindu gabe, legez kanpo jaisten dituelako produktu horiek.

ZEU GRABATZEN ARI DIRA

Jende asko dabil zuri buruzko informazio pertsonala eskuratu nahian, eta egunero ari dira zu grabatzen. Gero eta erakunde gehiago ari da zuri buruzko informazioa biltzen. Poliziak informazio hori erabil dezake delituak argitzeko; delinkuenteek, ordea, euren onurarako. Merkataritza-arloko erakundeek zuri buruzko informazioa behar dute dirua irabazteko. Saltzaileek zuri buruzko ahalik eta datu gehien bildu nahi dituzte. Ezer ez da doan, zeure informazio pertsonalarekin ordaintzen duzu. Eta gogoan izan erregistratuta dagoen zuri buruzko informazio pertsonala atzitzeko eskubidea duzula.



BATEN BAT DABIL ZURE AZTARNEI SEGIKA

IKUSI EGIN ZAITZAKETE!

Aurrerapen teknologikoez azkar egiten dute aurrera, eta etengabe ari dira aukera berriak eskaintzen:

IRAGARKI EGOKIAK

Hornitzaile batzuek zuk bidaltzen dituzun posta elektronikoak eskaneatzeko programa berezi bat dute, eta zure intereseko izan litezkeen gaietan lotutako hitzak bidaltzen ditu. Hortik, gero, iragarkiak zure interesen arabera moldatuko dituzte.

BILLETE ELEKTRONIKOAK

Horrelako billeteen bitartez, garraio-konpainiek ondo dakite non eta noiz egon zaren. Informazioa gorde egiten da, eta, hartara, konpainia horien web-orrien bitartez, erraz jakin dezakezu azkenaldian non egon zaren.

HATZ-MARKAK ETA ADN-A

Hatz-markak, irisa eskaneatzea eta antzeko beste bitarteko biometrikoak gero eta gehiago erabiltzen diren teknologiak dira. Badago ADNaren informazioarekin datu-base bat sortu nahi duenik ere. Egia bada ere horrelako datu-base baten laguntzarekin delinkuenteak harrapatzea errazagoa izango litzatekeela, informazio hori gaizki erabiltzeko arriskua ere badago (gizarte-bazterkeria, laneko bizitzan eragin kaltegarriak, arrazakeria...).

DENA GORDETZEN DA

- Delinkuentziari aurka egiteko asmoz, Europar Batasunak Datuak Gordetzeari buruzko Zuzentarau bat onartu du. Euskadin jadanik aplikatzen ari dira. Arau horren arabera, bi urtez gorde daiteke linea finkotik, telefono mugikorretatik edo IP telefonoetatik egindako deien gaineko informazioa (Espainian epe orokorra 12 hilabetekoa da), alde batera utzita elkarrizketaren iraupena. Eta horrek berdin balio du posta elektronikoak bidaltzen eta jasotzen ditugunerako, bai eta Interneten konektatzen garenerako ere.
- Deien gaineko datu guztiak artxibatzen dira; ez, hala ere, elkarrizketen edo bidalitako mezuen edukia.

Datu pertsonalak babesteak esan nahi du arauak daudela inork ez dezan erabil nahierara inori buruzko informazioa. Pentsatzen dugu orain argiago izango dituzula zer informazio eta norekin partekatu erabakitzeke irizpideak.

Nahiz eta guztiz kontrolatu ezin dituzun egoerak ere egon badauden, espero dugu orain seguruago sentituko zarela. Izan ere, gehienetan **ZUK ZEUK ERABAKITZEN DUZU!**

Gehiago jakin nahi al duzu?

Zure datu pertsonalen babesari buruzko eta gaiari buruzko araudiaren inguruko informazio gehiago behar baduzu, web-orri honetara jo dezakezu:

www.kontuzdatos.info

Informazio baliagarri gehiago eskuratzeko estekak ere aurki ditzakezu eta gai honi buruzko argibideak eman ahal dizkizuten beste talde batzuekin harremanetan jartzeko balio dezake. Nahi baduzu, **Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin** ere jar zaitezke harremanetan. Horretarako, deitu telefono-zenbaki honetara:

945 01 62 30 edo idatzi helbide honetara:

avpd@avpd.es

www.kontuzdatos.info